



Idiazabalgo
Udala

Espediente:
2026DILA0006

IDIAZABALGO UDALA

2026 ekitaldian Idiazabalgo udalerrian aisialdiko begiraleen eta zuzendarien prestakuntza sustatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.

2026ko irailaren 7an 2026/485 Alkate-udalburuaren Dekretu bidez ebatzitakoa.

Idiazabalgo Udalak haur eta nerabeentzako aisialdiko hezkuntza-jardueretan begirale eta zuzendari gisa aritzeko prestakuntza eskuratzen lagundu nahi die herritarrei.

Dirulaguntzaren oinarriak hasieraz onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 25ean egindako ohiko bilkuran.

Oinarri arautzaileen jendaurreko informazio-aldia amaitu ondoren, erreklamaziorik, alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez zenez, hasierako onarpena behin betikotzat jo zen, eta oinarri arautzaileak osorik argitaratu ziren.

Dirulaguntza hau 2025-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago eta 2. lerro estrategikoan kokatuta: Hezkuntza sustatzea. Dagokion helburu estrategikoa honako hau da: Hezkuntza-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekimenak bultzatzea, herritarren gaitasunak, parte-hartzea, ongizatea eta gizarte-kohesioa indartzeko.

Alkate-udalburuak, 2026/485 dekretu bidez, ebatzi du dirulaguntzen emakidaren deialdia 2026rako onartzea; horren edukia honako hau da.

DEIALDIAREN ARAUAK

1. Xedea eta zenbatekoa.

AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL

Convocatoria para la concesión de subvenciones destinadas al fomento de la formación de monitores y monitoras y directores y directoras de tiempo libre en el municipio de Idiazabal durante el ejercicio de 2026.

Decreto 2026/485 de 7 de septiembre de 2026 del alcalde.

El Ayuntamiento de Idiazabal pretende facilitar a la ciudadanía la adquisición de la formación necesaria para ejercer como monitor y monitora y director y directora en actividades educativas de tiempo libre dirigidas a la infancia y la adolescencia.

Las bases reguladoras de la subvención fueron aprobadas inicialmente por el Ayuntamiento-Pleno, en la sesión ordinaria celebrada el 25 de junio de 2026.

Finalizado el periodo de información pública de las bases reguladoras, sin que se hubieran presentado reclamaciones, alegaciones o sugerencias, la aprobación inicial quedó elevada a definitiva, procediéndose a su publicación íntegra.

Esta subvención está prevista en el Plan Estratégico de Subvenciones 2025-2027, situado en la 2ª línea estratégica: Fomento de la educación. El objetivo estratégico al que hace referencia es el siguiente: Impulsar iniciativas educativas, formativas y de sensibilización para fortalecer las competencias de la ciudadanía, su participación, su bienestar y la cohesión social.

El alcalde, mediante el decreto 2026/485 ha resuelto aprobar la convocatoria de 2026 de subvenciones, cuyo contenido se expresa a continuación.

NORMAS DE LA CONVOCATORIA

1. Objeto y dotación.



Deialdi honen xedea da 2025ean eta 2026an aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale edo zuzendari titulua eskuratzeko prestakuntzarako dirulaguntzak emateko deialdia egitea, dagokion oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera.

Idiazabalgo Udalak 3.000 euro bideratuko ditu 2026ko aurrekontuaren kontura dirulaguntza hauetara, honako partida honetatik:

1 480.01.326.00 2026 "Begirale, zuzendari".

Aurreikusten den epean aurkeztutako eskariak kontuan hartuko dira erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte, egon litezkeen kreditu gehitzeak ere aintzat harturik.

2. Onuradunak.

Dirulaguntza jaso ahalko dute honako pertsona fisiko hauek:

a) Idiazabalgo udalerrian erroldatuta daudenak.

b) Eusko Jaurlaritzak homologatutako edo ofizialki onartuta dauden zentroek emandako ikastaro batean matrikulatuta daudenak, Euskal Autonomia Erkidegoan edo beste autonomia erkidego batzuetan kokatuta daudenak.

c) Alderdi teorikoa gaingiduta duten eta titulua araututako gehienezko epearen barnean lortzen dutenak.

d) Foru Ogasunarekiko eta Idiazabalgo Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituztenak.

e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan xedatutako egoeraren batean ez daudenak.

3. Lagundu daitezkeen ikastaroak.

Aisialdiko begiraleen eta zuzendarien titulua eskuratzeko prestakuntza-ikastaroak, 2025eko eta 2026ko ekitaldietan egindakoak, betiere deialdi honen oinarrietan ezarritako gainerako

El objeto de la presente convocatoria es convocar las subvenciones para la formación destinada a la obtención del título de monitor y monitora o director y directora de actividades educativas de tiempo libre, realizadas en 2025 y 2026, de conformidad con las condiciones establecidas en las bases reguladoras.

El Ayuntamiento de Idiazabal destinará 3.000 euros, con cargo al presupuesto de 2026, a estas subvenciones, con cargo a la siguiente partida:

1 480.01.326.00 2026 "Begirale, zuzendari".

Las solicitudes presentadas en el plazo establecido se atenderán hasta agotar el presupuesto disponible, incluidas, en su caso, las incorporaciones de crédito.

2. Personas beneficiarias.

Podrán recibir subvención las siguientes personas físicas:

a) Aquellas que estén empadronadas en el municipio de Idiazabal.

b) Aquellas que estén matriculadas en un curso impartido por centros homologados por el Gobierno Vasco o reconocidos oficialmente, ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco o en otras comunidades autónomas.

c) Aquellas que hayan superado la parte teórica y obtengan el título dentro del plazo máximo establecido.

d) Aquellas que se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y con el Ayuntamiento de Idiazabal.

e) Aquellas que no se encuentren incursas en ninguna de las situaciones previstas en los artículos 13.2 y 3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

3. Cursos subvencionables.

Cursos de formación para la obtención del título de monitor y monitora y director y directora de tiempo libre, realizados en 2025 y 2026, siempre que cumplan el resto de las

baldintzak betetzen badituzte.

4. Eskaerak aurkeztea.

Eskaerak aurkezteko epea Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Eskaera-orri normalizatua egoki betea aurkeztu beharko da udal erregistroan, edota 39/2015 Legeak zehaztutako modu eta tokietan.

a) **Telematikoki:** erregistro elektronikoa aurkeztuz gero, eskatzaileak sinadura elektronikoa edo pasahitza erabili beharko ditu. Eskaera eta harekin joan behar duen dokumentazioa Internet bidez aurkeztu behar da Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikoa (<http://www.idiazabal.eus>) dagoen zerbitzu telematikoen atarian sartuta.

b) Aurrez aurre: Idiazabalgo Udaleko **Herritarren Harrera Zerbitzuan**.

c) Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikoa (<http://www.idiazabal.eus>) diru-laguntzen atarian. Halaber, eskuragarri egongo dira Herritarrentzako arreta emateko eta erregistratzen laguntzeko zerbitzuan.

5. Zer agiri aurkeztu behar den.

39/2015 Legearen 28. Artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Idiazabalgo Udalak zuzenean kontsultatuko du Gipuzkoako Foru Ogasunean, eskatzailea horren aurka azaltzen ez bada, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, eskatzaileak laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko behar den informazioa, bereziki

condiciones establecidas en las bases de la presente convocatoria.

4. Presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día siguiente al de la publicación de la Convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y permanecerá abierto hasta el 31 de octubre de 2026. Deberá presentarse la solicitud normalizada debidamente cumplimentada en el registro municipal, o en las formas y lugares establecidos por la Ley 39/2015.

a) **De forma telemática:** en caso de presentarse en el registro electrónico, el solicitante deberá utilizar la firma electrónica o la clave operativa. La presentación de la solicitud se realizará a través del registro ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Idiazabal (<http://www.idiazabal.eus>) en el apartado de servicios telemáticos.

b) De forma presencial: en el **Servicio de Atención Ciudadana** del Ayuntamiento de Idiazabal.

c) La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento de Idiazabal (<http://www.idiazabal.eus>), en el apartado de subvenciones. También estarán disponibles en el Servicio de Atención a la ciudadanía y asistencia en materia de registro.

5. Documentación a presentar.

De conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 39/2015 y en el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Idiazabal consultará directamente a la Hacienda Foral de Gipuzkoa, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, salvo que la persona solicitante se oponga a ello, la información necesaria para comprobar el cumplimiento por



Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituen egiaztatzekoa. Udaleko datuak ofizioz egiaztatuko dira.

parte de la persona solicitante de los requisitos de acceso a la ayuda y, en particular, si se encuentra al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social y Hacienda. Los datos del Ayuntamiento de comprobarán de oficio.

Eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

La documentación a presentar por la persona solicitante es la siguiente:

a) Dirulaguntza eskaera-orria normalizatua, behar bezala beteta eta sinatuta.

a) Instancia de solicitud de subvención normalizada, debidamente cumplimentada y firmada.

b) Eskatzailearen Nortasun Agiria edo horren baliokidea.

b) Documento de Identidad o documento equivalente de la persona solicitante.

c) Ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren agiria.

c) Justificante del abono de la matrícula del curso.

d) Eskolaren ziurtagiria. Bertan honako datu hauek jaso beharko dira:

d) Certificado de la escuela. En la misma deberán incluirse los siguientes datos:

- Ikastaroa antolatu duen aisialdi eskolaren ziurtagiria, adierazten duena alderdi teorikoa gainditu duela.
- Ikastaroa amaitu badu, berari dagokion titulua edo ziurtagiria.

- Certificado de la escuela de tiempo libre organizadora del curso en el que conste que se ha superado la parte teórica.
- Si la persona solicitante ha finalizado el curso, el título o justificante del mismo.

e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko aitorpena.

e) Declaración relativa a las subvenciones solicitadas a otras administraciones u otras instituciones públicas o privadas. También deberán declararse las subvenciones que ya se hayan recibido.

f) Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.

f) Documento que acredite la titularidad de la cuenta bancaria de la persona solicitante.

Nolanahi ere, Udalak beharrezkoa irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

En todo caso, el Ayuntamiento solicitará a las personas interesadas toda aquella documentación que considere necesaria para acreditar la veracidad de lo expresado en la solicitud.

Eskatzaileak uko egiten badio udalak bere datuak zuzenean NISAE

En el supuesto de que la persona solicitante se oponga a que el Ayuntamiento consulte sus



elkarreragingarritasun-nodoaren bidez kontsultatzeari, baldintzak betetzen ote dituen ala ez egiaztatzeko, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

Dirulaguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta oinarriak osotasunean onartzen dituela aitortuko du. Halaber, eskabidean agertzen diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla adieraziko du, eta datu horiei tratamendu automatizatua emateko baimena emango du. Era berean, datuak behar bezala baimenduta dauden Udalaren fitxategietan sartzea onartuko du. Horretaz gain, datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori Udalaren kudeaketara mugatzen bada.

6. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Idiazabalgo Udalak matrikularen kostua diruz lagunduko du. Dirulaguntzaren zenbatekoa matrikularen kostuaren %100 izango da, gehienez ere 500 euro eskatzaile bakoitzeko.

Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako dirulaguntza emateko bestekoa ez bada, dirulaguntzen onuradunen artean, dirulaguntzetarako den gehienezko zenbateko osoaren banaketa proportzionala egingo da.

Bestalde, EZ dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko:

*Oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastuak edo dirulaguntzaren oinarrietako helburuak lortzeko helburu zuzena ez dutenak.

7. Bideratzea.

datos directamente a través del nodo de interoperabilidad NISAE, a fin de verificar el cumplimiento de los requisitos, será la propia persona que solicita la ayuda quien deberá aportar la documentación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social y Hacienda.

Con la presentación de la solicitud de subvención, la persona solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente las bases. Asimismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Idiazabal y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal.

6. Cuantía de las subvenciones.

El Ayuntamiento de Idiazabal subvencionará el coste de la matrícula. La cuantía de la subvención será del 100% del importe de la matrícula, con un límite máximo de 500 euros por solicitante.

En el caso de que la consignación presupuestaria prevista para estas ayudas fuese insuficiente para responder a todas las solicitudes presentadas, se prorrateará entre todas las personas beneficiarias, del máximo global destinado a las ayudas.

Por otro lado, NO se considerará gasto subvencionable:

*En general todos aquellos gastos que no estén claramente definidos o que no tengan por finalidad directa la consecución de los objetivos de las bases de la convocatoria.

7. Instrucción.



Espediente hauek tramitatzea eta dirulaguntzak ematea Idiazabalgo Udaleko Gazteria sailaren ardura izango da. Unitate horrek ofizioz egingo ditu oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

8. Ebazpena.

Dirulaguntzak ebazteko organo eskuduna alkatea izango da. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe horretan ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsizat joko da, eta interesdunek dagozkien errekursoak jarri ahal izango dituzte.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ematen, dirulaguntza orok berekin duen iritzia araberako izaera baitu dirulaguntza honek ere.

Dirulaguntza ematea edo ez ematea erabakiko duen alkate-ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekursoa aurkeztu ahal izango zaio, administrazioarekiko auzi-errekursoaren aurretik, ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazio-auzietarako Epaitegian zuzenean inpuernatu daiteke, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

9. Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza modu honetan ordainduko da:

Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztenei bakarrik ordainduko zaie eta, betiere, gastua egin eta frogatu ondoren.

La gestión de estos expedientes corresponderá al Departamento de Juventud del Ayuntamiento de Idiazabal. Dicha Unidad realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

8. Resolución.

El órgano competente para resolver las subvenciones será la Alcaldía. La resolución será dictada y notificada en el plazo de un mes desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado resolución expresa, la solicitud se entenderá desestimada, pudiendo las personas interesadas interponer los recursos que procedan.

La presentación de solicitudes no otorga por sí misma el derecho a percibir la subvención, conservando esta concesión el carácter discrecional inherente a toda subvención.

La resolución del alcalde por la que se resuelva la concesión o denegación de subvención pondrá fin a la vía administrativa, pudiendo ser objeto de recurso potestativo de reposición, previo al contencioso administrativo, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó, contando desde la notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación.

9. Abono de subvención.

El abono de la subvención se realizará de la siguiente forma:

El pago se realizará exclusivamente a quienes cumplan todos los requisitos exigidos en la convocatoria y, en todo caso, una vez

Dirulaguntza emango da ordainketa bakar baten bidez.

realizado y justificado el gasto. La subvención se concederá mediante un único pago.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, hura bakarrik hartuta edo beste Herri Administrazio batzuen edo beste Erakunde Publiko edo pribatu batzuen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, ez da, inola ere, onuradunak egindako jardueraren kostua baino handiagoa izango.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otras Entes Públicas o privados, supere el coste de la actividad realizada por la persona beneficiaria.

Jarduerak, dirulaguntzarekin ez ezik, beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, funts horien zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira eta diruz lagundutako jardueretarako erabili direla egiaztatu beharko da.

Cuando las actividades hayan sido financiadas además de con la subvención, con otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurso jarri ezingo denik.

Todo ello sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que se estime procedente.

Iñaki Alberdi Iparragirre
IDIAZABALGO ALKATE UDALBURUA

Iñaki Alberdi Iparragirre
ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE
IDIAZABAL



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026DILA0006-Deialdia/Deialdia (IDIAZABALGO UDALA)